

**"BILBOKO MERKATARITZA BEREZIA"
BEREIZGARRIA EMATEKO OINARRIAK**

ARRAZOIEN AZALPENA

Txikizkako merkataritza funtsezkoa da hiriaren bizitzan, eta dinamizazio ekonomikoa ez ezik, hiriaren nortasun kulturala eta soziala ere bultzatzen ditu. Gaur egungo globalizazioaren eta merkataritza-eskaintzaren homogeneizazioaren testuinguruan, funtsezkoa da beren berezitasunagatik Bilboko merkataritza-ekosistemari balio bereizgarria ematen dioten establezimenduak aitortzea eta sustatzea.

Deialdi honen helburua hiriko txikizkako saltokiak aintzatestea da, beren izaera bakarragatik, tokiko garapenari egiten dioten ekarpenagatik eta kontsumitzaileei esperientzia berezia eskaintzeko duten gaitasunagatik nabarmentzen direnak.

Ekimen honek bikaintasuna, berrikuntza eta jasangarritasuna sustatu nahi ditu hiriko merkataritzan, Bilbo kalitate eta aniztasun komertzialeko erreferente gisa sendotuz.

Azaldutakoaren arabera, Bilbao Ekintza EPELeko Administrazio Kontseiluak 2026ko martxoaren 27ko bilkuran onartu du saltoki berezien deialdia.

1. ESPARRUA ETA XEDEA.

Oinarri hauen xedea da Bilbon "Saltoki Berezia" saria emateko prozedura arautzea, eta hala, beren berezitasunagatik, ekarpen kulturalagatik, berrikuntzagatik, jasangarritasunagatik eta hiriko merkataritza-ehunean balio diferentziala eskaintzeagatik nabarmentzen diren txikizkako establezimenduak aintzatesteko.

2. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Honako baldintza hauek betetzen dituzten txikizkako saltokiek parte hartu ahal izango dute deialdi honetan:

- a) Bilboko udalerrian kokatuta egotea.
- b) Gutxienez bi urteko antzinasuna duen eta jendearentzako irekita dagoen establezimendu fisiko bat izatea.

- c) Ezin izango dute deialdi honetan parte hartu banaketa-sare integratu baten parte diren merkataritza-establezimenduek, dela frankizia-kontratu bidez, 7/1996 Legearen 62. artikuluan eta 201/2010 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, dela merkataritza-kate handietako establezimendu gisa.
- d) Artikuluan ezarritako ebaluazio-irizpideei esleitutako puntuazioaren % 50 lortzea, gutxienez.
- e) Eskatutako dokumentazioa 5. artikuluan ezarritako epearen barruan aurkeztea.

3. EBALUAZIO IRIZPIDEAK

"Saltoki Berezia" bereizgarria emateko, honako irizpide hauetan oinarritutako puntuazio-sistema erabiliko da. Irizpide horietatik, gainera, zer eduki aztertu eta baloratuko den adierazten da jarraian:

- 1- Produktu edo zerbitzu eksklusiboa (15 puntu)
 - ✓ Merkatuan bereiztea
 - ✓ Ekoizpen edo hautaketa berezia
 - ✓ Berrikuntza produktuan
 - ✓ Historia edo balio kulturala
- 2- Kokapen bereizgarria (8 puntu)
 - ✓ Ingurune arkitektonikoa edo historikoa
 - ✓ Gune estrategikoa
 - ✓ Erreplikatzeko zaila
 - ✓ Irisgarritasun berezia
- 3- Diseinu eta dekorazio apartekoak (10 puntu)
 - ✓ Ondo definitutako ikusizko kontzeptua
 - ✓ Dekorazio-elementu paregabeak
 - ✓ Zentzumen-esperientzia
 - ✓ Bezeroarekiko elkarreragina

- 4- Historia eta tradizioa (10 puntu)
 - ✓ Negozioaren antzintasuna
 - ✓ Garrantzi historikoa
 - ✓ Markaren narratiba
 - ✓ Gizartearen aintzatespena

- 5- Muturreko pertsonalizazioa (9 puntu)
 - ✓ Neurrira edo eskaripean egina
 - ✓ Aholkularitza espezializatua
 - ✓ Baterako sorkuntza egiteko aukerak
 - ✓ Saldu osteko jarraipena

- 6- Bezeroarentzako arreta bikaina (10 puntu)
 - ✓ Tratu hurbila eta gogoangarria
 - ✓ Produktuaren ezagutza sakona
 - ✓ Azkartasuna eta arazoak konpontzea
 - ✓ Fidelizazioa eta sariak

- 7- Fabrikazio-prozesua edo salmenta berritzailea (9 puntu)
 - ✓ In situ ekoiztea
 - ✓ Teknika berritzaileak
 - ✓ Erosketa interaktiboko esperientzia
 - ✓ Salmenta-eredu diferentzialak

- 8- Eragina komunitatean (9 puntu)
 - ✓ Tokiko beste negozio batzuekiko lankidetzak
 - ✓ Komunitatearentzako ekitaldiak edo tailerrak
 - ✓ Kausa sozialekiko konpromisoa
 - ✓ Tokiko enplegu-sortzailea

- 9- Aintzatespena eta sariak (8 puntu)
 - ✓ Sektoreko sariak

- ✓ Presentzia komunikabideetan
- ✓ Aipamenak eta ospe digitala
- ✓ Adituen gomendioak

10- Jasangarritasuna eta erantzukizun soziala (12 puntu)

- ✓ Material ekologikoen erabilera
- ✓ Ekoizpen etikoa
- ✓ Ingurumen-inpaktua minimizatzea
- ✓ Hezkuntza eta kontzientziazioa

4. ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA

Hautagaitza formalizatzeko, interesa duten saltokiek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) Izena emateko inprimakia, behar bezala beteta.
- b) Merkataritzaren memoria deskribatzailea, historia, eskainitako produktu edo zerbitzuak, alderdi bereizgarriak eta inguruneari egindako ekarpena barne. Saltokiek justifikatu egin beharko dute irizpide bakoitza nola betetzen duten; horretarako, gutxienez memoriaren epigrafe bat eskainiko diote bakoitzari.
- c) Material grafiko lagungarria (establezimenduaren, produktuen eta/edo zerbitzuen argazkiak).

Aurkeztutako informazioaren egiazkotasunaren erantzukizunpeko adierazpena.

5. AURKEZTEKO EPEA ETA MODALITATEA

Eskabideak oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira. Epea zabalik egongo da Bilbao Ekintzako Zuzendaritza Nagusiak, arrazoiak emanez, amaiera ezarri arte.

Saltoki interesdunek posta elektronikoz bidali beharko dute dokumentazioa comercio@bilbaoekintza.bilbao.eus helbidera, edo bestela, aurrez aurre entregatu beharko dute Zabalgune Plazako 11. zenbakian, Bilbon.

6. BALORAZIO PROZESUA

Hautaketa-prozedurak fase hauek izango ditu:

1. Hautagitzak berrikustea, ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.
2. Izendatutako epaimahaiaren ebaluazioa; epaimahaiak 3. artikuluko irizpideak aplikatuko ditu. Epaimahaia Bilbao Ekintzako teknikariek eta saltoki berezi izateko saltokiek bete behar dituzten irizpideetan adituak diren pertsonak osatuko dute. Epaimahaiaren osaera Bilbao Ekintzako Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez zehaztuko da.
3. Beharrezkoa izanez gero, aurrez hautatutako merkataritza-saltokietara bisita teknikoak egitea.
4. "Saltoki berezia" izeneko saltokien ebazpena argitaratzea.

7. NABARMENDUTAKO SALTOKIENTZAKO ONURAK

Hautatutako saltokiek honako onura hauek jasoko dituzte:

- a) "Bilboko Merkataritza Berezia" zigilu bereizgarria. Zigilu hori fisikoa edo digitala izan daiteke, eta establezimenduaren ageriko leku batean agertu beharko da, edo, hala badagokio, euskarri digitaletan.
- b) Komunikabideetan eta plataforma digitaletan zabaltzea.
- c) Bilboko Udalak antolatutako sustapen-ekitaldietan parte hartzea.
- d) Saltoki berezien direktorio ofizial batean sartzea.

Saltokiek "saltoki berezi" izendapena gal dezakete gaizki erabiltzen badute, bai eta aintzatespen hori emateko baldintzak galtzen badituzte ere. Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez deklaratu da galera.

8. BALDINTZA OROKORRAK

Deialdi honetan parte hartzeak oinarri hauek erabat onartzea dakar. Bilbao Ekintzak beretzat gordetzen du horietan aurreikusten ez den edozein alderdi aldatzeko edo interpretatzeko eskubidea, bai eta deialdia bete gabe uztea ere, aurkeztutako hautagai-zerrendek eskatutako berezitasun-estandarrak betetzen ez badituzte.

9. ONURADUNEN INFORMAZIOAREN KONFIDENTZIALTASUNA

Bilbao Ekintza EPELek hartzen duen konpromisoaren arabera, haren jarduketa-programetan jarduten duten langileak programa horietako onuradunei buruzko edozein informazioaren jakitun suertatzen badira, informazio hori programaren xedeak burutzeko baino ez dute erabiliko. Horregatik, programak garatzeko kanpoko aholkulariek parte hartu behar dutenean, Bilbao Ekintza EPELek konfidentzialtasun-konpromisoa eskatuko die horiei, eskura duten informazioaren tratamenduari dagokionez.

10. PROGRAMAREN INDARRALDIA.

Deialdi hau indarrean sartuko da beronen laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, Zuzendaritza nagusiak bertan behera uztea erabakitzen duen arte

11. INTERPRETAZIOA, GARAPENA ETA ALDAKETA

Bilbao Ekintzak eskubidea du egoera zalantzarrietan oinarri hauek interpretatzeko, eta bere erabakiak behin betikoak izango dira.

Horri dagokionez, deialdi honetako punturen batean zerbait garatu, aldatu, egokitu edo kendu behar izanez gero, funtsa aldatu gabe, Bilbao Ekintza EPELeko Zuzendaritza Nagusiari ematen zaio aldaketa horiek egiteko eskumena, baina Administrazio Kontseiluari horren berri eman beharko dio neurriak hartu ondoren egiten den hurrengo

bileran.

Neurri hori hartzea erabakiz gero, Administrazio Kontseiluari jakinaraziko zaio, neurria hartu osteko lehen bileran.

SALTOKI BEREZIEN PROGRAMAREN OINARRI ARAUTZAILEAK
ESKABIDEA ETA ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA
1. Eskatzailearen identifikazio-datuak (eskatzailearen forma juridikoaren arabera betetzeko)

Pertsona fisikoa bazara

Eskatzailearen datuak

Izen-abizenak:
NANa:

Ondasun-erkidegoa (CB), sozietate zibila (SC) edo nortasun juridikorik gabeko taldea bazara

Eskatzailearen datuak

Izen soziala:
CB, SC edo nortasun juridikorik gabeko taldearen IFK:
Ordez kariaren izen-abizenak:
Ordez kariaren NANa:

CB, SC edo nortasun juridikorik gabeko taldearen kideen datuak

1. bazkidea

Izen-abizenak*	
NANa/IFK	
Dirulaguntzaren % **	

2. bazkidea

Izen-abizenak*	
NANa/IFK	
Dirulaguntzaren % **	

3. bazkidea

Izen-abizenak*	
NANa/IFK	
Dirulaguntzaren % **	

* CB, SC-ko kidea pertsona juridikoa izanez gero, adierazi haren izen soziala. Errepikatu behar adina.

** CB edo SC-n duen errenten esleipen-ehunekoa.

Enpresa bada

Eskatzailearen datuak

Enpresaren izen soziala
Enpresaren IFK:
Legezko ordezkariaren izen-abizenak:
Legezko ordezkariaren NANa:

2. Ebaluazio-irizpideak

Irizpideetako bakoitzari buruzko justifikazioa erantsi

1. Produktu edo zerbitzu eskusiboa (15 puntu)
2. Kokapen bereizgarria (8 puntu)
3. Diseinu eta dekorazio apartekoak (10 puntu)
4. Historia eta tradizioa (10 puntu)
5. Muturreko pertsonalizazioa (9 puntu)
6. Bezeroarentzako arreta bikaina (10 puntu)
7. Fabrikazio-prozesua edo salmenta berritzailea (9 puntu)
8. Eragina komunitatean (9 puntu)
9. Aintzatespena eta sariak (8 puntu)
10. Jasangarritasuna eta erantzukizun soziala (12 puntu)

3. Erantzukizunpeko adierazpena**BILBAO EKINTZA EPEL-EN AURREKO ERANTZUKIZUNPEKO
ADIERAZPENA**

..... jaunak/andreak, NAN zenbakidunak,
bere izenean edo enpresaren ordezkarietan (IFK:
.....), zeinak helbide soziala/fiskala helbide honetan duen:
..... edo lan-zentroa
Bilboko helbide honetan:
..... (telefono-zenbakia eta
helbide elektronikoa:).

HAU ADIERAZTEN DU:

- a) Ezagutzen eta onartzen dituela oinarrietan ezarritako baldintzak eta egiaztatzen duela egiazkoak direla enpresak eskaera-formularioetan emandako datuak.
- b) Mikroenpresa gisa kalifikatzeko beharrezko baldintzak betetzen dituela (gehienez hamar langile).
- c) Deialdi honetan ezarritako betekizun guztiak betetzen dituela, eta ez duela Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeko 24.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera onuradun izateko debekurik.
- d) Prozedura honetatik eratorritako jakinarazpen guztiak helbide elektronikoen bidez egiteko baimena ematen duela:

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak:

- e) Egunean ditudala zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua eta Bilboko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra eskatzen duten bezala, dirulaguntzen onuradun izateko. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua aplikatuz, Bilboko Udalak beharrezko kontsultak egingo ditu administrazio honen edo besteren baten esku dauden datu hauei buruz, aurretik adierazitako dirulaguntza lortzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

Honako zerbitzu hauei kontsulta egingo zaie:

- Bizkaiko Foru Aldundia
- Zerga-betebeharrak egunean dituela kontsultatzea. Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra
- Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorreko betebeharrak egunean dituela kontsultatzea.

Ez dut baimenik ematen kontsulta hauek egin daitezen (Bizkaiko Foru Aldundia - Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusia - Bilboko Udala), honako arrazoi hauen ondorioz:

.....(e)n, 20....(e)koaren(e)(a)n

Sinadura.

****DATUEN BABESA**

Datuak babesteko indarreko araudian xedatutakoarekin bat etorriz, Bilbao Ekintza EPELek jakinarazten du deialdi honetako eskarietan dauden datu pertsonalak Bilbao Ekintza EPELek tratatuko dituela. Helbidea Bilboko (48001) Nafarroa kaleko 5. zenbakian du, eta tratamenduaren helburua izango da eskatutako laguntzak eta/edo dirulaguntzak kudeatu eta izapidetzea.

Datuak bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator litezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira datuak.

Tratamendu horien oinarria tratamenduaren arduradun den Bilbao Ekintza EPELi emandako botere publikoak egikaritzea da.

Ez zaizkio datuak beste inori emango, legez derrigorrezkoa bada izan ezean. Ez da datuen nazioarteko igorpenik egingo.

Hauexek dira interesdunen eskubideak:

1. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatze eta mugatzeko edo tratamenduaren aurka agertzeko eskubidea, tratamenduaren arduradunaren helbidera idatzi bat bidaliz, nortasuna aldeztu aurretik egiaztatuta.

2. Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan erreklamatzeko eskubidea

BILBAO EKINTZA EPELek egiten duen datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazio gehiago jaso nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan datos@bilbao.eus helbide elektronikoaren bidez eta eskatu datu pertsonalen tratamendu honi buruzko informazio gehiago.

UDALAREN EDO BESTE ADMINISTRAZIO BATEN ESKU DAUDEN DOKUMENTUAK EGIAZTATZEA

Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, interesdunak EZ du aurkeztu behar Bilbao Ekintza EPELen edo beste administrazio publiko baten esku zegoen dokumentazioa; izan ere, Bilbao Ekintza EPELek kontsultatu eta eskatuko ditu dagozkion dokumentuak, **salbu eta kontsulta horren aurka egiten badu beheko laukia markatuz**. Kasu horretan, interesdunak dokumentazio hori aurkeztu beharko du.

Ez dut baimenik ematen kontsulta hauek egin daitezen (Bizkaiko Foru Aldundia - Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusia), honako arrazoi hauen ondorioz:

Behean sinatzen duenak bere gain hartzen du jasotako datuen egiazkotasunaren erantzukizun osoa.

Eskatzailearen edo legezko ordezkariaren sinadura

Bilbon, 202....(e)koaren(e)(a)n

